


1. BALIO PROPOSAMENA:

Akademiak ez dira ezer berria. Nork ez ditu akademiak ezagutzen? Ingelesa irakasten dutenak edonon aurki daitezte, eta baita matematikan laguntzen dutenak ere. Baliteke beste ikasgai batzuetako akademiak historia, esaterako, ez izatea hain ospetsu ala ohikoak, baina zihur nago ugari ere daudela.

Hala ere, *Up to Date*-k ez dauka zer ikusirik akademia tradizionalekin; jarraian azalduko ditugun abantailaz aparte, aplikazioak beste akademiek dituzten irakasketa metodoak hobetu eta gaur egungo bizitzara moldatu ditu, besteez konpundu ezin izan dituzten arazoekin amaitzeko.

Zehazki, landuko ditugun irakasgaiak honako bederatzia hauek dira: biologia, geologia, matematika, fisika, kimika, historia, eta hiru hizkuntzak; hau da, euskera, gaztelania eta ingelesa.



Lehenik eta behin, *Up to Date* premiazko kezka bati zuzentzen zaio: denbora. “Denbora urrea da”. Esamolde hori askotan entzun dugu, batez ere, egin nahi dugun guztia amaitzeko denbora oztopo bat delako. Baina horrek ez digu lo gehiagorik kenduko; izan ere, aplikazio honek modua aurkitu du denbora oztopo bat izan ez dadin; edo, behintzat, ez hainbeste.

Askotan, zerbait egiteari utzi egin behar izan diogu beste gauza garrantzitsu bat momentu berean zelako. Adibidez, ikasle batek futbol entrenamendua badu azteazkenetan arratsaldeko 6etan, eta matematika klaseak momentu berean balira, ekintza bietatik bat aukeratzeko derrigortua ikusiko luke haren burua. Alde batetik, kirola utziko balu, bere osasun psikologikoari kalte egingo lioke, hori baita haren erlaxatzeko eta disfrutatzeko momentua. Bestetik, matematika klaseak jasotzeari utzi egingo balio, haren notak okerrera joango liriateke. Hitz bitan esanda, ordutegi finkoek mugatu egiten gaituzte. Horregatik, *Up to Daten* proposamena ordutegi librea da, bakoitzak haren burua eta denbora nahi duen bezala antolatu dezan.

Batzuk galdezka ariko dira zein muga dagoen edo zein den erabiltzeko gehienezko denbora, baina erantzuna oso erraza da: ez dago. Agian erokeria dirudi, ez dela koherentea, baina benetan zentzu handia dauka. Bizitza eta egunerokoa ez da inoiz berdina; baliteke batzuetan aisialdi



luzea izatea, ala zerbait praktikatzeko behar handiagoa; baina baliteke ere egun oso lanpetua izatea, gaxorik sentitzea, ala deskantsatzeko gogoak izatea. Hori guztia normala da.



Alabaina, gutxieneko denbora bat egongo da; izan ere, hobekuntza nabarmen bat izateko, praktikatzea ezinbestekoa da. Ikasgai bakoitzeko ikasleak gutxienez ordu bat eman beharko du astean. Arestian esan dugun legez, honek ez du esan nahi ikasleak bakarrik ordu bat eman behar duenik ikasgai bakoitzeko, ordutegi librea izateak ikasleari ondo datorkion bezala antolatzeak aukera izango duela baizik. Beraz, honek denbora hau beteko ez balu, aplikazioak urrengo astelehenean abiso bat emango lieke gmailez, bai ikasleari, bai gurasoei.

Bestalde, gure produktua bere prezioagatik ere nabarmen daiteke; izan ere, aipatu dugun moduan, ikasleek nahi beste egon daitezke aplikazioa erabiltzen, eta hala eta guztiz ere, prezioa berdina izaten mantenduko da (“diru-sarrerak” atalean hobeto azalduko dugu).

Proposamen honen beste abantaila bat da ikasleak haren heldutasuna eta independentzia garatu ahal izango dituela bere eginkizunak antolatzearen bitartez, etorkizunean ezinbestekoa izango den zerbait.



Beste balio proposamena *Up to Date* eskaintzen duen metodologia da, “klase partikularretan” oinarritua. Akademietan, klase bakoitzak 15 ikasle inguru ditu, eta guztiak lagunduak badira ere, klaseak ez daude ikasle zehatz batentzako prestatuak, baizik eta klasearentzako orokorrean. Ondorioz, gehienetan, ikasleek material aurreratu arren, ez diote klaseari ahalik eta probetxu gehien ateratzen. Aplikazioak, aldiz, online bada ere, ariketa eta material pertsonalizatuagoa eskainiko du, ikaslearen arabera.

Lehenik eta behin, ikasleak ikasgai batean suskribitu ondoren, ariketa mota ugari agertuko zaizkio egiteko; baina ariketa horiek egin ahala, haietan lortu dituen emaitzak eta akatsak aplikazioak bilduko ditu. Horrela, denborarekin, ikasleari ateratzen zaizkion ariketa motak pertsonalizatuago egongo dira haren indarguneen eta ahuluneen arabera, gehien kostatzen zaionean hobe dezan. Honen helburua ikasleak materia guztia eguneratua eukitzea da, hurrengo urteetan ikasiko duenerako ezinbestekoa izango baita. Ikasleak gai bat ulertuko ez balu, materia berria atzeratua izango luke ere.

Era berean, material ez-konbentzionala eskainiko da; hain zuzen ere, bideo hezigarriak eta dibulgatzaileak. Hauek gaiak era ulerterraz batean azalduko ditu eta ikasleak interesgarriak aurkitu ditzan petsatuak egongo dira. Horretarako, hainbat gauza erabiliko dira, ilustrazioak eta “fun facts”, esaterako.

Azkenik, atal berezi bat egongo da, gurasoei zuzendua. Atal honen bitartez, gurasoek haien seme-alaben hobekuntza jarraitzeko kapazak izango dira.

Laburbiltzeko, aplikazioaren bitartez irakasten dena akademietan irakasten denaren parekoa bada ere, haren metodologia berezia *Up to Date* aplikazio modernoa, eraginkorra, eta apartekoa bihurtzen dute zalantzarik gabe.